

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

## 126

*198/2018 DEKRETUA, abenduaren 26koa, SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako Nazioartekotze zuzendaria izendatzeko dena.*

Azaroaren 13ko 160/2018 Dekretuaren bidez, SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren estatutuak onartzen dira. Dekretu horren eranskinaren 12.3 artikulua hau xedatzen du: Nazioartekotze Zuzendaritzaren titularraren izendapena Eusko Jaurlaritzak egingo du, dekretu bidez, industria-politikaren eta enpresa-lehiakortasunaren esparruan eskumena duen sailburuaren proposamenez.

Ondorioz, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2018ko abenduaren 26an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, hauxe

#### XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– María Ainhoa Ondarzabal Izaguirre andrea izendatzea SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako Nazioartekotze zuzendari.

2. artikulua.– Dekretu honek 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko abenduaren 26an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,  
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.